

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Letren Fakultatea

Facultad de Letras

# EHP 2020

UPV/EHUko irakasleen  
eta ikertzaileen hizkuntza  
prestakuntzarako plana

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



# **EHP-2020**

## **UPV/EHUko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako Plana**

Euskara Zerbitzua

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren alorreko Errektoreordetza

UPV/EHU

## Aurkibidea

1. Testuingurua .....	5
2. Helburu orokorrak.....	6
3. Oinarriak.....	10
4. Prestakuntza-eskaintzaren egitura orokorra .....	10
5. Kudeaketa, akreditazioa eta ebaluazioa .....	13
1. eranskina: EPGn hizkuntza-prestakuntzarekin zerikusia duten helburu eta ekintzak.....	14
2. eranskina: Diagnosi-protokoloaren egitura: dimentsioak eta adierazleak .....	15
3. eranskina: Prestakuntza-ekintzen ezaugarrien zehaztapena.....	16
4. eranskina: Prestakuntza-ekintza bakoitzari dagokion aitortza .....	20
5. eranskina: Prestakuntza-ekintzak balioesteko proposamena .....	21

## 1. Testuingurua

UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidariak (2018-2022<sup>1</sup>) bost ardatz estrategiko ezarri ditu UPV/EHUK euskararen alorrean dituen konpromisoei aurre egiteko:

**I. ardatza:** Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa.

**II. ardatza:** Formazioa.

**III. ardatza:** Corpus linguistikoaren plangintza.

**IV. ardatza:** Ikerketa eta hedapena.

**V. ardatza:** Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (AZP).

Lehen lau ardatzetan, berariaz jasotzen dira irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzarekin zerikusia duten helburuak zein ekintzak. Horrez gain, lau ardatzetan zehazten dira ezinbestean hizkuntza-gaitasun egokia eskatzen duten helburuak zein ekintzak (Ikus 1. eranskina).

Izan ere, UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidarian ondo islatzen denez, hizkuntza-prestakuntza giltzarri da plan horretan aurreikusten diren funtsezko helburuak lortzeko, besteak beste:

- *Graduko, graduondoko eta etengabeko prestakuntzaren arloko euskarazko irakaskuntza-eskaintza bermatu eta handitu ahal izateko (4.2.1. eta 4.2.2. helburuak)*
- *Euskara irakasleen eta ikertzaileen lan-hizkuntza izan dadin (4.1.3. helburua)*
- *Ikertzaileen artean euskararen ezagutza handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatzeko (4.4.4. helburua)*
- *Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatzeko (4.2.3. helburua)*
- *Euskarazko irakaskuntzarako materialen eta hizkuntza baliabideen kopurua handitzeke (4.3.1. helburua)*

---

<sup>1</sup> Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.eus/documents/2660428/2968265/Euskararen-III-plan-gidaria.pdf/c1e54c15-f34e-0e1c-963a-22400f52a0ba>

- *Euskarazko irakaskuntzarako materialen kalitate linguistikoa bermatzeko (4.3.2. helburua)*
- *Euskarazko irakaskuntzarako materialen, corpusen eta hizkuntza baliabideen erabilera handitzeko (4.3.3. helburua)*

Era berean, III. EPGn estrategikotzat jotzen diren hainbat ekintzak, zerikusi zuzena dute irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzarekin. Honako hauek, besteak beste:

- *Euskarri digitaletan euskararen presentzia bultzatzeko ekimenak garatzea (4.3.1.4 ekintza)*
- *Euskarazko irakaskuntzarako euskarri diren tresna digitalen garapena bultzatzea (4.2.3.4. eta 4.3.2.1. ekintzak)*
- *Irakaskuntzarako materialen eta ikasliburuen sorkuntza zein itzulpena sustatzea (4.3.1.1. ekintza)*
- *Euskarazko irakaskuntzarako materialak sortzeko lantalde-proiektuak bultzatzea (4.3.1.3. ekintza)*

Hori horrela, Euskararen III. Plan Gidarian irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntza ezinbestekotzat jotzen da bai euskararen presentzia, prestigioa eta erabilera handitzeko, bai irakaskuntzaren kalitatea areagotzeko; bai euskararen corpusaren garapenean aurrera egiteko; eta baita ere euskararen hedapena sustatzeko. Areago, irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-gaitasuna giltzarri da planean aurreikusten diren ahalegin guztiak optimizatzeke.

## 2. Helburu orokorrak

Txostenaren lehen atalean zerrendatu dira, UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidariaren arabera, irakasleen eta ikertzaileen prestakuntzarako EHP-2020 jomugan izan beharreko ildo estrategikoak. Horiek horrela, hauek dira irakasleen eta ikertzaileen prestakuntza plan honen bidez erdietsi nahi diren helburu lehenak:

- 1. helburua:** Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna ez duten irakasleei eta ikertzaileei hizkuntza-prestakuntza eskaintzea.
- 2. helburua:** Hizkuntza-premia espezifikoei erantzungo dien prestakuntza eskaintzea, irakasleek eta ikertzaileek eskuarki egiten behar izaten dituzten unibertsitateko zerreginek eskatzen duten aditutasun-maila eskura dezaten.
- 3. helburua:** Irakasleei eta ikertzaileei prestakuntza eta baliabideak eskaintzea, haiek sortutako irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatzeko gai izan daitezen.

Hiru ildo horietan aurrera eginez, euskarari bideak zabaldu nahi zaizkio lan-hizkuntza gisa eremuak irabaz ditzan, dela zientzia egiteko, dela irakasteko. Era berean, baldintza egokiak sortzen lagundu nahi da euskarazko irakaskuntza-eskaintza zabaldu ahal izan dadin graduan, graduondokoan zein etengabeko prestakuntzaren arloan. Bestela esanda, hiru lan-ildo horien bidez, baliabideak eskaini nahi zaizkie irakasleei

eta ikertzaileei euskaraz eskaintzen duten irakaskuntzaren kalitatea bermatu ahal izan dezaten, zientziaren hedapenerako egiten diren ekimenek inpaktu handiagoa izan dezaten eta, era berean, euskararen corpus akademiko eta profesionala hedatzen eta aberasten jarrai dezaten.

Alabaina, irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzak zentzu betea izan dezan, euskarak UPV/EHUk dituen aukerak eta erronkak hartu behar dira kontuan, oro har. Alegia, hizkuntza-prestakuntzarako programak diseinatzean Euskararen III. Plan Gidariak ezarritako helburu estrategikoen «mapa» konplexua hartu behar aintzat, zentzu zabalenean. Izan ere, ezin da ahaztu, prestakuntza-programek beste maila bateko helburuei erantzun behar dietela, osotasunean erdietsiko badira plan gidarian aurreikusten diren helburu orokorrak.

Horrexegatik guztiagatik, funtsezko jotzen da gogoeta egitea irakasleek eta ikertzaileek eremu bakoitzean dituzten premia espezifikoei buruz, eta eremu horietako bakoitzean irakasleek zein ikertzaileek egitea espero den ekarpenari buruz. Horretarako, ekintza estrategiko hau aurreikusten du Euskararen III. Plan Gidariak: *Graduko ikasketetan euskararen egoeraren azterketarako diagnosi protokoloa egitea eta ekintza plan pilotuak diseinatzea* (4.2.3.1. ekintza).

Hori horrela, diagnosi-tresna bat ere badakar irakasleen eta ikertzaileen prestakuntza plan honek berekin bat. Horren bidez, bermatu nahi da martxan jartzen diren prestakuntza-ekintzak ikuspegi soziolinguistikotik marko egokian testuinguratzea. Horrez gain, hizkuntza-prestakuntzarako plangintza sektorialak egiteko metodologia ere eskaintzen digu EHP-2020 planari euskarri ematen dion diagnosi-tresnak. Horretarako, protokolo dimentsioaniztuna diseinatu da. Txostenaren bigarren eranskinean kontsulta daiteke protokolo horren egitura orokorra (ikus 2. eranskina).

Azkenik, EHP-2020 planaren bidez, bermatu nahi da, halaber, bidezko aitortza izan dezaten hizkuntza-gaitasun areagotzeko eta euskararen corpora elikatzen jarraitzeko irakasleek eta ikertzaileek egiten dituzten ahaleginek. Horretarako, EHP-2020 planak alor honetako merezimenduen aitortza modu estandarizatuan egiteko eredia ere badakar berekin bat, UPV/EHUren ohiko ebaluazio-prozesuetan, deialdietan eta kontratazioetan aplikagarri izan dadin garatua.

Horretarako, RED-Uk argitaratutako Irakaskuntzaren alorreko Garapen Akademiakoaren Markoak (MDAD) <sup>2</sup>eskaintzen dituen eskalekin lerrokatu da hizkuntza-prestakuntza plana. Eredu horrek lau maila zehazten ditu irakaskuntza-jardueraren garapen profesionalaren ibilbidea irudikatzeko. Era berean, hiru dimentsio hartzen ditu kontuan maila bakoitzari dagozkion deskriptoreak finkatzeko («curriculum», «prozesuak» eta «oinarriak»). Ildo horretatik, honela definitu dira EHP-2020 planean eskainiko diren prestakuntza-ekintzen bidez erdietsi nahi diren ikaskuntza-emaitzak:

---

<sup>2</sup> Paricio, J. (2018). *Marco de desarrollo académico docente*. Zaragoza: RED-U. Hemen eskuragarri: [https://red-u.org/wp-content/uploads/2018/06/MarcoREDU\\_Doc1\\_PlanteamGral\\_1.pdf](https://red-u.org/wp-content/uploads/2018/06/MarcoREDU_Doc1_PlanteamGral_1.pdf)

<b>1. maila: Erabiltzaile gaitua</b>		
<p>Irakasleak diskurtso akademi-koaren eredu egokia eskaintzen die ikasleei, bai banatzen dituen materialen bidez, eta baita haren ahozko jardunaren bitartez ere.</p>	<p><b>Dokumentu zuzen eta zehatzak erabiltzen ditu irakasleak irakaskuntza-jardueraren euskarri gisa (berak sortuak zein beste iturrietatik eskuratuak), betiere, euskara estandarraren irizpidearen arabera moldatuak.</b></p> <p>Zabalkunde-mailako argitalpen zientifiko egokiak egiten ditu.</p> <p>Ahoz, erregistro zaindua erabiltzen du. Azalpen magistral argiak egiten ditu.</p> <p>Eguneroko ohiko harremanetan, egoki erantzuten die ikasleen zalantzei.</p>	<p>Ondo menderatzen ditu hizkera akademiko zainduaren arauak eta irizpideak: funtsezko arau akademikoak, funtsezko arau ortografiko eta gramatikalak, eta, dago-kion irakasgaiari dagokionez, normalizatuta dagoen lexiko espezializatua.</p>
<b>2. maila: Erabiltzaile aditua</b>		
<p>Irakasleak orientabide egokiak eskaintzen dizkie ikasleei hizkuntzaren erabilerari dagokionez, haien diskurtso-gaitasuna ikasketa-planean aurreikusten den mailan garatu ahal izan dezaten.</p>	<p><b>Dokumentu akademiko konplexuak ekoizten ditu. Ikerketa-lanen txosten argi eta zehatzak egiten ditu. Ahozko azalpenetan, ñabardurak ere eraginkortasunez transmititzen ditu. Ikasleekiko harremanetan, eraginkorra da ikasleen jarduna gidatzen: talde-dinamikak, gatazkak...</b></p>	<p>Ondo menderatzen ditu hizkera akademiko jasorearen konbentzioak. Era berean, ondo ezagutzen ditu, eta modu autonomoan aplikatzen ditu UPV/EHUK testu akademikoetarako zehaztutako hizkuntza-irizpide espezifikoa. Euskarazko terminologiaren ezagutza zabala du.</p>
<b>3. maila: Eragile aktiboa</b>		
<p>Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, orientabide egokiak eskaintzen dizkie ikasleei, haien hizkuntza-jarduna autorregulatu ahal izan dezaten eta haien ekoizpenen gainean gutxienezko kontrol-maila izan dezaten. Ikasleen ebaluazio egiteko orduan ere modu integral eta integratuan hartzen du kontuan nola erabiltzen duten ikasleek hizkuntza, eta zein neurritan den haien komunikazio-gaitasuna eraginkorra, irakasgaiaren helburuen testuingurua.</p>	<p><b>Kalitate handiko irakaskuntza-materialak eta ikaskuntza-baliabideak sortzen ditu: apunteak, bideoak, webguneak...</b></p> <p><b>Goi-mailako ikerlanak ekoizten ditu. Ondo kudeatzen ditu hizkuntzak egoera elebidun zein eleaniztunetan. Era berean, gai da itzulpen-zein bitartekotza-lanak egiteko ere, egoerak hala eskatzen duenean. Modu aktiboan hartzen du parte euskararen corpus akademikoa garatzeko eta aberasteko proiektuetan.</b></p> <p>Terminologia mailako proposamenak egiten ditu, betiere, irizpide sendoak abiapuntu.</p>	<p>Testugintzaren zein terminologia akademikoaren oinarriak ondo menderatzen ditu. Kalitatezko argitalpenen eta jendaurreko ekitaldien hizkuntza-eskakizunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu.</p> <p>Oinarrizko itzulpen-estrategiak zein dokumentu eleaniztunak egiteko protokoloak ezagutzen ditu.</p>



Era berean, MDAD markoan aurreikusitakoari jarraikiz, laugarren maila ere definitu da, hain zuzen ere, prestakuntza-programetan irakasle,- tutore- edo eragile-lanetan ari direnek hizkuntzaren normalizazioari eta garapenari, eta, horren bidez, irakaskuntzaren kalitateari egiten dioten ekarpena aitortzeko. Hona hemen, maila horri dagozkion zehaztasunak.

4. maila: Mentorea		
Irakasgaiaren curriculumean zeharka eta, behar denean, modu espezifikoan tratatzen ditu hizkuntzaren erabilerarekin eta komunikazio akademiko-profesionalarekin zerikusia duten alderdiak, ikasleen ikaskuntza-emaitzak optimizatzeko baliabide gisa tratatuz. Era berean, ikasleengan kontzientzia pizten du komunitate akademiko osoak (ikasleak barne) hizkuntzaren normalizazioan duen erantzukizunaz.	<b>Parte hartzen du ikasleen hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna sustatzeko estrategien, baliabideen eta programen garapenerako berrikuntza- zein ikerketa-proiektuetan. Ikasleen, irakasleen zein profesionalen prestakuntzarako programak garatzen eta zuzentzen ditu. Diskurtso akademiko eta profesionalaren inguruko gradu amaierako, master amaierako zein doktoretzako lanak zuzentzen ditu.</b>	Ondo ezagutzen ditu hizkuntzen normalizazio-prozesuen eta diskurtso akademiko-profesionalaren eskuratze-prozesuen oinarriak. Ondo ezagutzen ditu diskurtso akademiko-zientifikoaren eskakizunak. Ondo ezagutzen ditu testugintza akademikoaren berezitasunak eta terminologia-lanaren metodologia eta irizpideak.

Taulan jasotako deskriptoreak zehazteko kontuan hartu dira, alde batetik, **Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa**<sup>3</sup> eta, bestetik, **HABEren Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculum**<sup>4</sup>. Horrez gain, oso kontuan hartu dira ikasleen zeharkako gaitasunen garapenean (komunikazio-gaitasunen garapenean, bereziki) unibertsitateko irakasleek dituzten ardurak zehazten dituzten askotariko lanak, baina, batez ere, **UPV/EHUren Zeharkako gaitasunen katalogoa**<sup>5</sup> eta irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko **UPV/EHUren DOCENTIAZ programaren**<sup>6</sup> oinarriak eta egitura.

Azkenik, programa hau diseinatzeko orduan, oso gogoan izan dira **UPV/EHUren Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzuak**<sup>7</sup> zein **UPV/EHUren Nazioarteko Harremanen Bulegoak**<sup>8</sup> irakasleen etengabeko prestakuntzarako eskaintzen dituen programen, eta orain arte Euskara Zerbitzuak eskainitako ikastaroenak<sup>9</sup>. Horren bidez, bermatu nahi izan da berrikuntzaren, nazioartekotze-prozesuen eta euskararen normalizazioaren ardatzen inguruko prestakuntza-ahalegin guztiak estandar berberen arabera balioetsi ahal izan daitezela ohiko ebaluazio, akreditazio eta kontratazio-prozesuetan.

<sup>3</sup> Hemen eskuragarri: [https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu\\_9716/adjuntos/europako\\_markoa.pdf](https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf)

<sup>4</sup> Hemen eskuragarri: [https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu\\_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf](https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf)

<sup>5</sup> Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.eus/documents/1432750/12757375/Zeharkako+gaitasunen+katalogoa.pdf/8e229174-7996-5b14-1fed-d1ef6a292661>

<sup>6</sup> Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/sed-iez/docentiaz>

<sup>7</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz>

<sup>8</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/aurkezpena>

<sup>9</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/euskara-zerbitzua>

### 3. Oinarriak

Esandakoagatik, EHP-2020 planak abiapuntu ditu euskarak UPV/EHUen egun duen egoeraren diagnosa eta hurrengo urteei begira ezarritako helburu estrategikoak. Horrela, bada, helburu estrategiko horiek aintzat hartuz, printzipio gidari hauek hartu dira oinarri gisa prestakuntza-ekintzen katalogoa diseinatzeko:

- Hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak ezinbesteko dira irakaskuntza- zein ikerketa-jardunean.
- Zenbat eta hizkuntza-gaitasun jasoagoa izan, orduan eta malgutasun eta segurtasun handiagoa dute irakasleek eta ikertzaileek, ikasgelan jarduteko, materialak sortzeko edota ikerketa-lanak ekoizteko.
- Irakasle eta ikertzaileek, eredu onak eskaini ez ezik, hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak garatzen lagundu ere egin behar diete ikasleei.
- Funtsezkoa da irakasleek eta ikertzaileek kontzientzia har dezaten nolako ekarpena egiten dioten eta egin beharko lioketen euskara akademiko-profesionalaren garapenari.
- Irakasleek eta ikertzaileek haien zeregin profesionaleri hertsiki zuzendutako prestakuntza-jarduerak behar dituzte.
- Irakasle eta ikertzaile guztiek ez dute ingurune eta profil soziolinguistiko bera, eta ezta zeregin profesional berberak ere; hortaz, ez dituzte guztiek premia berberak hizkuntza-prestakuntzari dagokionez.
- Hizkuntza-prestakuntzarako ahaleginak optimizatu egin behar dira prestakuntza-ekintzen iraupena eta modalitatea, lortu nahi den helburuaren arabera doitzuz.
- Irakasleek eta ikertzaileek alor honetan egiten dituzten ahaleginek ezagutza osoa izan behar dute ibilbide akademikoa balioesteko UPV/EHUren prozesuetan zein laguntzak edo lanpostuak eskuratzeko UPV/EHUren deialdietan.

Printzipio horiek aintzat hartuz, EHP-2020 planean 6 prestakuntza-programa aurreikusten dira, eta, guztira, 15 prestakuntza-ekintza ezberdin. Horien bidez, askotariko profil, premia eta helburuak dituzten irakasleen zein ikertzaileen eskariari erantzutea bilatzen da, betiere marko egituratu, egonkor eta estandarizatu baten testuinguruan.

### 4. Prestakuntza-eskaintzaren egitura orokorra

EHP-2020 prestakuntza-planak aurreikusten duen eskaintzak abiapuntu bezala hartzen du Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak aurrez zuen eredua. Alabaina, Euskararen III. Plan Gidariak aurreikusitakoaren ildotik, zabaldu eta egokitu egin da eskaintza hori, UPV/EHUk gaur egun dituen erronkei erantzun dibertsifikatu eta, aldi berean, espezifikagoa eskaintzearren,

Lehenik eta behin, plan honek irakasleen eta ikertzaileen kolektibo nagusi guztiak ditu xede-talde:

- Haien burua zeregin akademikoetarako gaitu nahi duten doktoregaiak
- Ibilbide akademikoaren hastapenetan dauden irakasleak
- Hizkuntza-gaitasuna sendotu nahi duten irakasle elebidunak
- Euskaraz lan egiten esperientzia luzea duten irakasle zein ikertzaileak
- Etorkizunean euskaraz aritzeko interesa izan dezaketen irakasleak

Edukiei eta helburuei dagokienez, bestalde, prestakuntza-ekintzen katalogo zabala aurreikusi da EHP-2020 planean:

- Euskaraz irakasteko gaitzekoak (C1/EIGA egiaztatzea)
- Irakasteko euskara gaitasuna sendotzekoak (C1+)
- Erabiltzaile adituaren akreditazioa lortzera bideratuak (C2 egiaztatzea)
- UPV/EHUren hizkuntza-irizpideak ezagutzera bideratuak (C2+)
- Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak eguneratzera bideratuak
- Irakaskuntzarako multimedia baliabideak sortzera bideratuak
- Artikuluak, ikerketa-lanak eta ikasmaterialak ekoiztera bideratuak
- Nork bere arloko terminologia aztertu, landu eta zabaltzera zuzenduak

Era berean, hainbat modalitate eta intentsitate dituzten programak aurreikusten dira:

- Programa presentzialak, onlinekoak eta jardun bikoak
- 10 ordukoak, 20 ordukoak, 50-75 ordukoak eta 120-150 ordukoak
- 4 astekoak, lauhileko batekoak, ikasturte osokoak
- 70/20/10 ereduaren arabekoak: % 70 banako ikaskuntza esperientziala; % 20 ikaskuntza soziala; eta % 10 ikaskuntza formala

Horrez gain, Hizkuntzen Europako Markoaren eta Unibertsitateko Irakasleen Garapen Akademikoaren Markoaren arabera egituratu da prestakuntza-programen eskaintza. Hona hemen egitura orokorra.

<b>1. maila:</b> Erabiltzaile gaitua (C1)	<b>EIGA programa</b>
<b>1. maila:</b> Erabiltzaile gaitua (C1+)	<b>ZUZEN programa</b>
<b>2. maila:</b> Erabiltzaile aditua (C2)	<b>ADITU programa</b>
<b>2. maila:</b> Erabiltzaile aditua (C2+)	<b>HOBEKUNTZA programa</b>
<b>3. maila:</b> Eragile aktiboa	<b>AITZINATU programa / TSE programa</b>
<b>3. maila:</b> Eragile aktiboa	<b>Euskarazko ikasmaterialen deialdia</b>
<b>4. maila:</b> Mentorea	<b>Trebakuntza-mintegiak</b>

Horrela bada, EHP-2020 planean Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak aurrez ere babesten zituen bi programa integratu dira: **Hobekuntza Ikastaroak**<sup>10</sup> eta **Terminologia Sareak Ehunduz**<sup>11</sup>, eta bakoitzari kokapen egokia eman zaio marko berrian. Bestalde, lau prestakuntza-programa berri diseinatu dira, aurreko eskaintza zabaldu, eta bestelako premiei erantzutearren: EIGA, ZUZEN+, ADITU eta AITZINATU.

<sup>10</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hobekuntza-ikastaroak-irakasleak>

<sup>11</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/terminologia-sareak-ehunduz>

Horrez gain, hurrengo irudian ikus daitekeenez, Euskara Zerbitzuak dituen bi deialdirekin nolabaiteko lotura egin, eta baliabideak optimizatzeko bideak aurreikusi dira. Bi hauek dira deialdi horiek: **Ikasmaterialgintza eta liburugintza sustatzeko deialdia**<sup>12</sup> eta **Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia**<sup>13</sup>. Hurrengo irudian laburbildu da prestakuntza-eskaintzaren ikusmira orokorra. Eranskin gisa eskaintzen dira prestakuntza-ekin-tzari buruzko xehetasunak (ikus 3. eranskina).

<b>1. MAILA: Erabiltzaile gaitua (C1/C1+)</b>
<b>EIGA programa (C1):</b> <b>Euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzera bideratutako programa</b> <b>Aitortza:</b> EIGA akreditazioa (UPV/EHUren azterketa-deialdia)
<b>ZUZEN programa (C1+)</b> <b>Hizkera zaindu orokorra lantzeko programa</b> <b>Aitortza:</b> C1+ akreditazioa
Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia
<b>2. MAILA: Erabiltzaile aditua (C2/C2+)</b>
<b>ADITU programa (C2)</b> <b>Erabiltzaile adituaren gaitasun-maila eskuratzeko programa</b> <b>Aitortza:</b> C2 mailako ziurtagiria (HABEren azterketa-deialdia)
<b>HOBEKUNTZA programa (C2+)</b> <b>UPV/EHUren hizkuntza-irizpideak eta -baliabideak ezagutzeko eta lantzeko programa</b> <b>Aitortza:</b> parte-hartze ziurtagiriak
<b>3. MAILA: Eragile aktiboa/erreferentziako erabiltzailea</b>
<b>AITZINATU eta TSE programak</b> <b>Irakaskuntzako materialen hizkuntza-kalitatea hobetzeko eta terminologia espezializatua bildu, aztertu eta gizarteratzeko programak</b> <b>Aitortza:</b> Euskara Zerbitzuaren ziurtagiria balioetsia
<b>EUSKARAZKO MATERIALAK SUSTATZEKO PROGRAMA</b> <b>Irakaskuntzarako orotariko baliabideak sortu eta argitaratzeko programa: glosarioak, hiztegiak, eskuliburuak...</b> <b>Aitortza:</b> ISBN/ISSNdun argitalpenak

Eskema honetan jasotako programez gain, neurrira egindakoak ere aurreikusten dira EHP-2020 planean, betiere, lehentasunezko zat jotzen diren xede-taldee zuzenduak badira edota premiazko zat jotzen diren proiektuen testuinguruan garatzekoak badira, baldin eta beharrezko den finantzaketa gehigarria bermatzeko aukera lortzen bada. Halakoak dira, besteak beste, terminologiaren inguruko mintegi iraunkorrak, hiztegi-gintzaren alorreko proiektuak, edo irakasgai berriak prestatzekoak.

<sup>12</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/2019-10-21-deialdia>

<sup>13</sup> Ikus: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/2019-10-01-erabakia-iip>

## 5. Kudeaketa, akreditazioa eta ebaluazioa

Programaren kudeaketaren ardura Euskara Zerbitzuarena izango da. Euskara Zerbitzuak egingo ditu EHP-2020 planean aurreikusten diren programen deialdiak, eta haren esku egongo da izena emateko eta akreditatzeko prozedura administratiboa. Prozesu horiek guztiak modu egokian bideratu ahal izateko, deialdiaren aurretik zehaztuko da nortzuk izango diren kudeaketaren arduradunak. Besterik erabaki ezean, Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunak kudeatu eta koordinatuko ditu deialdiak, eta berak egingo du, halaber, prestakuntza-ekintzen jarraipena ere.

Parte-hartzaileen aitortza modu eskalatu eta ponderatuan egin ahal izateko, hiru aldagai hartuko dira kontuan: a) programaren intentsitatea; b) programari aitortutako maila; eta c) parte-hartze mota. Hori ahalbidetzeko, datu hauek zehaztuko dira ziurtagirietan: ikastaroaren izena, ikastaroaren iraupena, ikastaroaren hizkuntza-maila, ikastaroaren maila MDAD ereduaren arabera, eta dagozkion ECTS kreditu baliokideak.

EIGA zein ZUZEN+ programako parte-hartzaileek, bestalde, aukera izango dute C1 mailaren egiaztigiri ofiziala eskuratzeko, HABEren zein UPV/EHUren EIGA deialdietan parte hartuz. ADITU programan parte hartzen dutenek, berriz, aukera izango dute C2 mailaren egiaztigiri ofiziala eskuratzeko, HABEren azterketa-proben deialdietan parte hartuz.

Egiaztigiri horiek guztiek indarrean dagoen legeriaren arabera balioa izango dute ebaluazio-, akreditazio- zein kontratazio- deialdietan. Eranskinetan kontsulta daitezke programa bakoitzari legokiokeen aitortza (ikus 4. eranskina) eta deialdiz deialdi, ziurtagiri bakoitzaren kasuan aplikatzea proposatzen den baremoa (ikus 5. eranskina).

Planaren beraren jarraipena eta ebaluazioa egitearren, azkenik, datu hauek jaso eta aztertuko dira: programa bakoitzean eskainitako plazen kopuruak; izena eman duten irakasle eta ikertzaileen kopuruak; onartutakoen kopuruak, programak osorik amaitu dituztenen kopuruak; programak gauditutakoen kopuruak; azterketa ofizialetara aurkeztutakoen kopuruak; akreditazio ofiziala lortu duten parte-hartzaileen kopuruak; eta aurrekontuaren exekuzioarekin zerikusia duten datuak. Horrez gain, parte-hartzaileen asetasun-mailari buruzko datuak ere hartuko dira kontuan.

EHP-2020 planak Euskararen III. Plan Gidariaren garapenean izandako inpaktua neurtzeko, datu horiek guztiak adierazle hauekin lerrotatuko dira:

Zka	Ardatza	Izenburua
5	II	Irakaskuntza gaitasuna duten jardunaldi osoko irakasle plaza elebidunen ehunekoa (%).
6	II	Irakaskuntza gaitasuna duten irakasle plaza elebidunen ehunekoa (%).
8	II	Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).
11	II	Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).
12	III	UPV/EHUko euskarazko argitalpenen kopurua
13	IV	Euskaraz egindako doktorego tesien ehunekoa (%).
14	IV	Euskaraz egindakoen artean nazioartekoak diren doktorego tesien ehunekoa (%).
15	IV	UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako zientzia artikuluen kopurua

<b>1. eranskina:</b> EPGn hizkuntza-prestakuntzarekin zerikusia duten helburu eta ekintzak.	
<b>I. ardatza:</b> Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa	
Helburua(k)	Ekintza(k)
<b>4.1.3.</b> Zerbitzua euskaraz ematea eta euskara lan-hizkuntza izatea	<b>4.1.3.1.</b> Irakasle-ikertzaile orori, lanerako hizkuntza gaitasuna eskuratzeko ikastaroak eta baliabideak eskaini
<b>II. ardatza:</b> Formazioa	
Helburua(k)	Ekintza(k)
<b>4.2.1.</b> Graduoko euskarazko irakaskuntza-eskaintza handitzen jarraitu ahalik eta titulazio gehienak osorik euskaraz egin ahal izateko	(Ezinbesteko da euskaraz jarduteko hizkuntza-gaitasun egokia duten irakasle espezialistak izatea)
<b>4.2.2.</b> Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakaskuntza-eskaintza handitu.	
<b>4.2.3.</b> Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatu	
	<b>4.2.3.1.</b> Graduoko ikasketetan euskararen egoe-raren azterketarako diagnosi protokoloa egin eta ekintza plan pilotuak diseinatu. <b>4.2.3.2.</b> Irakasleen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio moduluak eskaini. <b>4.2.3.4.</b> Euskarazko irakaskuntzarako euskarri diren tresna digitalen garapena bultzatu.
<b>III. ardatza:</b> Corpus linguistikoaren plangintza	
Helburua(k)	Ekintza(k)
<b>4.3.1.</b> Euskarazko irakaskuntzarako materialen eta hizkuntza baliabideen kopurua handitu.	<b>4.3.1.2.</b> Irakaskuntzarako materialen eta ikasburuen deialdietan euskarri berrietarako materialgintza sustatu. <b>4.3.1.4</b> Euskarri digitaletan euskararen presentzia bultzatzeko ekimenak babestu eta garatu
<b>4.3.2.</b> Euskarazko irakaskuntzarako materialen kalitate linguistikoa bermatu	<b>4.3.2.1.</b> Irakaskuntzarako materialen kalitate linguistikoa bermatzeko irakasle-ikertzaileei formazioa eskaintzen jarraitu.
<b>4.3.3.</b> Euskarazko irakaskuntzarako materialen, corpusen eta hizkuntza baliabideen erabilera handitu erakunde normalizatzaileekin elkar-lana sustatuz.	<b>4.3.1.1.</b> Irakaskuntzarako materialen eta ikasburuen sorkuntza zein itzulpenetarako plangintzak egin eta deialdiak burutu. <b>4.3.1.3.</b> Euskarazko irakaskuntzarako materialak sortzeko lantalde-proiektuak bultzatu (adibidez, Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuen deialdiaren barruan).
<b>IV. ardatza:</b> Ikerketa eta hedapena	
Helburua(k)	Ekintza(k)
<b>4.4.4.</b> Ikertzaileen artean euskararen ezagutza handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatu	<b>4.4.4.1.</b> Kontrataturako ikertzaileen (14/2011 legeko 22. artikulukoak eta iraunkorrak) euskara gaitasuna erregistratu eta C1 maila egiaztatuta ez dutenei UPV/EHUko EIGA azterketara aurkezteko informazioa luzatu. <b>4.4.4.2.</b> Kontrataturako ikertzaileei euskara ikasteko dauden laguntzen berri eman. <b>4.4.4.3.</b> Kontrataturako ikertzaileei euskarazko komunikazio akademikoa lantzeko berariazko formazioa eskaini.

<b>2. eranskina.</b> Diagnosi-protokoloaren egitura: dimentsioak eta adierazleak.
<b>LEHEN ATALA:</b> Euskarazko eskaintza: testuingurua, bilakaera eta baliabideak
1. Graduaren testuinguru soziolinguistikoa
<b>1.1. Euskarazko eskaintzaren bereizgarriak:</b> historia, mugarriak, lorpenak, aitortzak...
<b>1.2. Graduaren lotura euskararen normalizaziorako estrategikoak diren eremuekin</b>
<b>1.3. Pertsonalaren euskararen ezagutza:</b> IRI zein AZP elebidunen kopuruak
<b>1.4. Irakasle elebidunen egoera:</b> kategoria, dedikazioa eta irakaskuntza-enkargu erregularra
<b>1.5. Euskarazko taldeetako ikasle-kopuruaren bilakaera</b>
<b>1.6. EPGan zehaztutako irakasgaiak egin dituzten ikasleen kopuruak</b>
<b>1.7. 47/2012 dekretuaren arabera C1 mailako aitortza eskatu duten ikasleen kopuruak,</b>
2. Euskarazko irakaskuntza-eskaintza eta eskaintza horren inpaktua
<b>2.1. Euskarazko eskaintza:</b> euskaraz eskaintzen den irakaskuntza-kredituen kopurua
<b>2.2. Euskarazko eskaintzaren inpaktua:</b> euskaraz matrikulatutako kredituak
<b>2.3. Ikasle euskaldunen joerak:</b> lehen matrikula, talde-aldaketak...
3. Euskararen erabilera eta garapena sustatzeko ekimenak
<b>3.1. Lidergoa:</b> euskara ikastegiaren eta graduaren kudeaketa-prozesuen egiturari
<b>3.2. Euskararen erabilera eta garapena sustatzeko tresnak:</b> euskara-plana, BIKAIN...
<b>3.3. Euskararen Plan Gidarian aurreikusitako ekimenak</b>
4. Euskararen corpus-garapena eta irakaskuntzarako baliabideak
<b>4.1. Ekoizpen akademikoak:</b> Aldizkariak, webguneak, tesiak...
<b>4.2. Hizkuntza-baliabideak:</b> hiztegi espezializatuak, estilo-liburuak, itzulpen-memoriak...
<b>4.3. Eskuliburuak:</b> jatorrizkoak eta itzulpenak
<b>4.4. Gelako materialak:</b> ppt-ak, laborategiko gidoiak, apunteak..
<b>4.5. Zabalkundea:</b> baliabide irekiak, irakasle-taldeek partekatzen dituzten baliabideak..
5. IRIen hizkuntza-prestakuntza
<b>5.1. Euskalduntze-ikastaroen deialdian</b> parte hartu IRIen kopurua
<b>5.2. Euskara Zerbitzuko ikastaroetan</b> parte hartu duten IRIen kopuruak
<b>5.3. Terminologia Sareak Ehunduz programan</b> parte hartu duten IRIen kopuruak
<b>5.4. Materialgintza-deialdian</b> parte hartu duten IRIen kopuruak
<b>5.5. Ikasleen lanak euskaraz zuzendu dituzten irakasleen kopuruak:</b> gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta doktoretza-tesiak
<b>BIGARREN ATALA:</b> Euskarazko eskaintzaren inguruko pertzepzioa
<b>1. Ikastegiko arduradunen pertzepzioa</b>
<b>2. Irakasle elebidunen pertzepzioa</b>
<b>3. Ikasleen pertzepzioa</b>
<b>HIRUGARREN ATALA:</b> Euskarazko eskaintza hobetzeko proposamenak
<b>1. Ikastegiko arduradunen proposamenak</b>
<b>2. Irakasle elebidunen proposamenak</b>
<b>3. Ikasleen proposamenak</b>

### 3. eranskina. Prestakuntza-ekintzen ezaugarrien zehaztapena

**EIGA programa: Euskaraz irakasteko gaitasun-agiria eskuratzeko programa** (C1 maila. Erabiltzaile aurreratua).

**Helburua:** Gai izatea lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; eta, era berean, lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jarioz eta eraginkortasunez adierazteko.

**Arduraduna:** Zerbitzuaren esleipena eskuratzen duen euskaltegi homologatua.

**Hartzaileak:** Euskaraz irakasteko gaitasun-agiria (EIGA) zein C1 mailako beste edozein egiaztagiri eskuratzeko prestatu nahi duten irakasle edota ikertzaileak.

**Iraupena:** 100 ordu (urtarrila-maiatza)

**Modalitatea:** online

**Plaza-kopurua:** 10 plaza ikasturteko

**Konpromisoa:** Jardueren betetze-maila (%80), tutoretzetan parte hartzea eta probara aurkeztea

**Aitortza:** Euskara Zerbitzuaren ziurtagiria/ EIGA edo C1 ziurtagiri ofiziala (azterketa-deialdien bidez eskuratzekoa).

**Aprobetxamenduaren ebaluazioa:** HABEren irizpideei jarraikiz, euskaltegiak jasotako ebidentzien bidez.

**ZUZEN+ programa: Hizkuntzaren ezagutza eta eraginkortasun komunikatiboa sendotzeko programa** (C1+ maila. Erabiltzaile gaitua).

**Helburua:** Ahoz zein idatziz testu argiak eta zehatzak ekoizteko gaitasuna indartzea, arreta berezia jarriz, irakaskuntza- zein ikerkuntza-lanaren testuinguruan norberak izan ditzakeen zalantzei, egin ohi dituen akatsei, irakaskuntza- zein ikerketa-lanean eroso eta seguru jarduteko indartu beharreko alderdiei.

**Egitura:** Modularra. Ahozko jardunerako eta komunikazio idatzirako programa paraleloak. Bietako bat bakarrik egiteko aukera.

**Hartzaileak:** C1 maila egiaztatua izanik, irakaskuntzarako komunikazio gaitasuna indartu nahi duten irakasleak, bereziki, haien ezagutzak eguneratu, ohiko akatsak landu eta jarioz gaitasuna zein ziurtasuna irabazi nahi dutenak.

**Arduraduna:** Zerbitzuaren esleipena eskuratzen duen euskaltegi homologatua

**Aitortza:** Euskara zerbitzuaren C1+ ziurtagiria.

**Iraupena:** 120 ordu (urria-ekaina)

**Modalitatea:** Presentziala

**Lekua:** Leioa, Donostia eta Gasteiz (campusean)

**Plaza-kopurua:** 27-36 plaza urteko.

**Taldea osatzeko gutxieneko kopurua:** 9 lagun.

**Konpromisoa:** %60ko bertaratzea

**Aprobetxamenduaren ebaluazioa:** Euskara Zerbitzuak diseinatutako portfolio baten bidez



**3. eranskina. Prestakuntza-ekintzen ezaugarrien zehaztapena**

**ADITU programa: Irakaskuntza zein ikerketa-lanerako komunikazio-gaitasun aurreratuak garatzeko programa** (C2 maila. Erabiltzaile aditua).

**Helburua:** Gai izatea norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokitzuz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai izango da, jariotasun handiz eta zehaztasunez, gauzak adierazteko, baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

**Hartzaileak:** C1 maila egiaztatua izanik, erabiltzaile adituaren maila eskuratu nahi duten irakasle zein ikertzaileak. C2 mailako egiaztagiria eskuratu nahi duten pertsoneri bereziki zuzendua.

**Arduraduna:** Zerbitzuaren esleipena eskuratzen duen euskaltegi homologatua

**Aitortza:** C2 mailak ikastaroa egin izanaren ziurtagiria. HABEren C2 mailako azterketa-proben deialdi itxian parte hartzeko aukera.

**Iraupena:** 100 ordu (50 aurrez aurre+50 bakarka+5 tutoretza)

**Modalitatea:** jardun bikoa (erdipresentziala)

**Lekua:** Leioa, Donostia eta Gasteiz (campusean)

**Plaza-kopurua:** 27-36 plaza, ikasturteko.

**Taldea osatzeko gutxienerako kopurua:** 9 lagun.

**Konpromisoa:** % 80ko asistentzia

**Aprobetxamenduaren ebaluazioa:** Euskara Zerbitzuak zehaztutako ezaugarriak beteko dituen proiektuaren bidez

**HOBEKUNTZA programa. Euskara sakontzeko hobekuntza-ikastaro laburrak**

**Helburua:** Testu akademiko zainduak egiteko beharrezko diren trebetasunak garatzea, UPV/EHUren hizkuntza-irizpideak ezagutzea eta hizkuntza-baliabideak erabiltzen ikastea.

**Hartzaileak:** Haien hizkuntza-ezagutzak eta testu akademikoak egiteko trebetasunak indartu nahi dituzten irakasle zein ikertzaileak.

**Eskaintza (aukerako gaiak):**

- Interneteko hizkuntza-baliabideak
- Unibertsitateko testuak: ohiko zuzenketak
- Testu akademikoak itzultzen trebatzeko lantegia
- Euskara batuko araugintzan sakontzeko ikastaroa
- Testu akademikoak: EHULKUren aholkuak
- Terminologia: oinarriak eta hautabideak

**Arduraduna:** UPV/EHUko Euskara Zerbitzua.

**Iraupena:** Lau aste. 20 ordu (ikastaro estandarra)

**Aitortza:** UPV/EHUren Euskara Zerbitzuaren parte-hartze agiria

**Ezaugarriak:** Onlineko ikastaroak (aurrez aurrekoak ere izan litezke)

**Plaza-kopurua:** 25 ikastaro bakoitzean

**Konpromisoa:** Eskatutako jarduerak garaiz eta modu egokian egitea

**Aprobetxamenduaren ebaluazioa:** Euskara Zerbitzuak zehaztutako atazen betetze-mailaren arabera.

### 3. eranskina. Prestakuntza-ekintzen ezaugarrien zehaztapena

**AITZINATU programa. Irakaskuntzarako material eta baliabide egokiak eta eraginkorrak garatzeko programa** (C2 maila. Eragile aktiboa).

**Helburua:** Irakaskuntza- zein ikerketa-jarduneko materialak (apunteak, diapositibak, irakaskuntza-gidak, artikulak, eskuliburuak, OCW ikastaroak..) edota ikus-entzunezko baliabideak (webguneak, bideo didaktikoak..) orraztea, eguneratzea edota sortzea,

**Hartzaileak:** irakaskuntzarako materialak eguneratu edota sortzeko konpromisoa hartzen duten irakasleak edota artikulak zientifiko bat euskaraz argitaratzeko konpromisoa hartzen duten irakasle-ikertzaileak.

**Eskaintza:**

- AITZINATU-1: ikasgelako materialak orrazten eta eguneratzen laguntzeko prestakuntza-programa
- AITZINATU-2: testu akademikoaren eta argitalpen zientifikoaren idazkuntzan eta zuzenketan laguntzeko prestakuntza-programa
- AITZINATU-3: irakaskuntzarako multimedia-baliabideen eta baliabide digitalen garapena sustatzeko prestakuntza-programa

**Aitortza:** 6 ECTS eta DOCENTIAZ programarako ziurtagiria.

**Iraupena:** 6 hilabete

**Ezaugarriak:** 10 ordu presentzial (mintegiak) + 5 ordu online + proiektua

- 4-5 laguneko taldeak, ahal denean, fakultate edo arlo berekoak
- Aurrez aurreko 2 orduko 5 saio (10 ordu)
- Onlineko 5 tutoretza indibidual (5 ordu)
- Zalantzak argitzeko eta kontsultak egiteko etengabeko zerbitzua (online)

**Arduraduna:** Kasuaren arabera, Euskara Zerbitzua bera edota Euskara Zerbitzuak izendatutako saila, irakasle-talde edota hizkuntza-zerbitzu etako enpresa.

**Lekua:** Taldearen arabera, lantokian bertan edo campusean

**Plaza-kopurua:** 18 (taldea osatzeko gutxienezkoa, 5 lagun)

**Konpromisoa:** Kasuaren arabera,

- Irakasgaiaren erabiltzen diren oinarriko materialak orraztea (irakaskuntza-gida, diapositibak, azterketa-probak...)
- Ikasleentzako ikus-entzunezko baliabideak sortzea (bideo didaktikoak, webgune didaktikoa, eta abar).
- UPV/EHUren ikasmaterialekin deialdira aurkezteko eskuliburu bat orraztea.

Proiektu kooperatiboak dituzten irakasleek izango dute lehentasuna: irakasgaiarekin partekatzen duten irakasle-taldeak, argitalpen bat egin nahi duten egile-taldea, berrikuntza-taldeak...

**3. eranskina. Prestakuntza-ekintzen ezaugarrien zehaztapena**

**Terminologia Sareak Ehunduz programa (TSE). Terminologia espezializatua erauzi, landu eta gizarteratzeko programa.**

**Helburuak:**

- Irakasleak euskararen erregistro akademikoen garapenean eta, oro har, euskararen normalizazioan duten erantzukizunaz jabetzea.
- Irakasleen artean, sareak sortzea eta dinamizatzea, haien arteko harreman-faltak eragiten duen finkapenik eza konpentsatzen laguntzeko.
- Unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen diren hizkuntza-baliabideak eta terminologia erreala ikusgai egitea beste aditu-irakasleentzat eta normalizazio-ekimenetarako.

**Aitortza:** Parte-hartze ziurtagiriak (1., 2 eta 3. mailako ziurtagiriak, konpromiso-mailaren arabera) DOCENTIAZ programarako aitortza (0,25-2,0 puntu, konpromiso-mailaren arabera).

**Ezaugarriak:** Lan-unitatea norberaren irakasgaia izango da. Horrenbestez, parte-hartzaileek haiek aukeratzeko duten irakasgaiaren inguruko materialetatik abiatuta, irakasgai horri dagokion terminologia espezifikoa landuko dute. Zergatik irakasgaia lan-unitate bezala?

- Komunikazio-unitate akademikoa da, eta posible egiten du irakasle (talde) batek erabiltzen dituen hizkuntza-baliabideak eta, bereziki, terminologia komunikazio-egoera jakin batekin lotzea.
- Lan egiteko oso unitate erabilgarria da: parte-hartzaileen lana haiek ematen duten irakasgai batean egiten duten hizkuntzaren erabilera ikusgai egitera mugatzen da.

**Arduraduna:** UPV/EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila.

**Iraupena:**

1. Maila: 10 ordu
2. Maila: 60 ordu
3. Maila: 60 ordu

**Lekua:** Taldearen arabera, lantokian bertan edo campusean

**Plaza-kopurua:** Zehazteke

**Konpromisoa:** Programan parte har daiteke hainbat konpromiso eta inplikazio mailatan.

- Lehen konpromiso maila da irakasgai bat aukeratu eta irakaskuntzan erabiltzen diren dokumentuak (apunteak, ppt aurkezpenak, praktika-protokoloak, azterketak, ikasleentzako gida, azterketak...) Garaterm lan-ingurunera igotzea, Garaterm corpusean kontsultagai jartzeari begira.
- Bigarren konpromiso maila da irakasgaian erabilitako dokumentu horietan erabiltzen den terminologia termino-zerrenda eleaniztun batean biltzea, TZOS datu-base terminologikoan kontsultagai jartzeari begira.
- Programan areago inplikatu nahi duten irakasleek aukera edukiko dute erabiltzen duten terminologia modu sistematikoan lantzeko, eta sarean kontsultagai jartzeko html hiztegi terminologikoa egiteko.

**4. eranskina. Prestakuntza-ekintza bakoitzari dagokion aitortza****EHP-2020: Koordinazioagatik edo bestelako ardurengatik aurreikusitako aitortza**

PROGRAMA	ECTS baliokideak
EIGA/ZUZEN+/ADITU programa (urteko deialdia, 9 talde)	3 ECTS
Hobekuntza ikastaroak (urteko deialdia)	2 ECTS
AITZINATU (urteko deialdia, 3-5 talde)	3 ECTS
TSE koordinatzailea	12 ECTS
TSE: arduradun teknikoa	6 ECTS
TSE sustatzailea	1 ECTS

**EHP-2020: Irakasle/mentore izateagatik aurreikusitako aitortza**

PROGRAMA	Iraupena	Parte-hartzaileen kop*	MDAD maila	ECTS baliokideak
Hobekuntza ikastaroak	20 ordu	----	4	2 ECTS
AITZINATU	60 ordu	6	4	6 ECTS
TSE-1	10 ordu	6	4	1 ECTS
TSE-2	60 ordu	6	4	6 ECTS
TSE-3	60 ordu	6	4	6 ECTS
TSE-Mintegi iraunkorrak	40 ordu	6	4	4 ECTS

\* Taldean parte-hartzaile gehiago edo gutxiago badaude, modu proportzionalan gehitu edo murriztuko da ECTS baliokideen kopurua.

**EHP-2020: prestakuntza-ekintzetan parte hartzeagatik aurreikusitako aitortza**

PROGRAMA	Iraupena	EEM maila	MDAD maila	ECTS baliokideak
EIGA	120 ord.	C1	1	12 ECTS
ZUZEN+	120 ordu	C1+	1	12 ECTS
ADITU	165 ordu	C2	2	15 ECTS
HOBEKUNTZA Ik.	20 ordu	C2	2	2 ECTS
AITZINATU	60 ordu	C2	3	6 ECTS
TSE-1	10 ordu	C2	3	1 ECTS
TSE-2	60 ordu	C2	3	6 ECTS
TSE-3	60 ordu	C2	3	6 ECTS
TSE-Mintegi iraunkorrak	40 ordu	C2	4	4 ECTS

**OHARRAK:**

- Programa honetako egiaztagiriak UPV/EHUren deialdi guztietan baliatu ahal izango dira. Alabaina, ziurtagiri hauek ez dute krediturik murriztuko irakaskuntzako kredituetan.
- Programa hauetan koordinazio-, tutore-, mentore- edo laguntzaile-ardurak dituzten UPV/EHUko kideek, ziurtagiriaz gain, bestelako aitortzarik edo ordainsaririk ere eskuratu ahal izango dute.

<b>5. eranskina. Prestakuntza-ekintzak balioesteko proposamena</b>	
<b>Irakasleen lan-poltsen deialdirako proposamena</b>	
<b>Euskararekin lotutako beste merezimendu batzuk:</b>	
<b>Baremoa:</b> gehienez, 2,20 puntu.	
Hobekuntza ikastaroak	0,25 puntu/ ikastaroko
ZUZEN	1,20 puntu
ADITU	1,65 puntu
AITZINATU	1,80 puntu
TSE-1	0,20 puntu
TSE-2	1,0 puntu
TSE-3	1,0 puntu
TSE-Mintegi iraunkorra	0,50 puntu
C2 egiaztatzea	2,20 puntu
<b>Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea</b> (tutoreak/mentoreak).	
<b>Baremoa:</b> 0,5 puntu/3 ECTS	
Hobekuntza ikastaroak	0,33 puntu/taldeko
AITZINATU	1,00 puntu/taldeko
TSE-1	0,15 puntu/taldeko
TSE-2	1,00 puntu/taldeko
TSE-3	1,00 puntu/taldeko
TSE-Mintegi iraunkorra	0,50 puntu/taldeko
<b>Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea</b> (koordinatzaileak).	
<b>Baremoa:</b> 0,5 puntu/3 ECTS	
PROGRAMA	ECTS baliokideak
EIGA/ZUZEN+/ADITU programa (urteko deialdia)	0,50 puntu/deialdiko
Hobekuntza ikastaroak (urteko deialdia)	0,33 puntu/deialdiko
AITZINATU (3 talde)	0,50 puntu/deialdiko
TSE koordinatzailea	0,33 puntu/deialdiko
TSE: arduradun teknikoa	1,00 puntu/deialdiko
TSE sustatzailea	0,15 puntu/deialdiko

5. eranskina. Prestakuntza-ekintzak balioesteko proposamena	
<b>Aldi baterako irakasleen kontratazio –lehiaketetarako proposamena</b>	
<b>Euskararekin lotutako beste merezimendu batzuk:</b>	
<b>Baremoa:</b> C2, maila edo baliokidea, 2,20 puntu. Hobekuntza-ikastaroak, 1 puntu/100 ordu.: gehienez, 2,20 puntu.	
Hobekuntza ikastaroak	0,25 puntu/ ikastaroko
ZUZEN+	1,20 puntu
ADITU	1,80 puntu
C2 egiaztagiria	2,20 puntu
<b>Irakaskuntza- berrikuntzako prestakuntza egiaztatua</b> ( $\leq 0,25$ puntu /3 kreditu)	
AITZINATU	1,50 puntu/moduluko
TSE-1	0,10 puntu
TSE-2	1,50 puntu
TSE-3	1,50 puntu
TSE-Mintegi iraunkorra	1,00 puntu
<b>Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea</b> (tutoreak/mentoreak).	
<b>Baremoa:</b> $\leq 1$ puntu/3 ECTS	
Hobekuntza ikastaroak	0,66 puntu/taldeko
AITZINATU	2,00 puntu/taldeko
TSE-1	0,30 puntu/taldeko
TSE-2	2,00 puntu/taldeko
TSE-3	2,00 puntu/taldeko
TSE-Mintegi iraunkorra (tutorea)	1,50 puntu/taldeko
<b>Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea</b> (koordinatzaileak).	
<b>Baremoa:</b> $\leq 1$ puntu /3 ECTS	
PROGRAMA	ECTS baliokideak
EIGA/ZUZEN+/ADITU programa (urteko deialdia)	1,00 puntu/deialdiko
Hobekuntza ikastaroak (urteko deialdia)	0,66 puntu/deialdiko
AITZINATU (3 talde)	1,00 puntu/deialdiko
TSE koordinatzailea	0,66 puntu/deialdiko
TSE: arduradun teknikoa	2,00 puntu/deialdiko
TSE sustatzailea	0,30 puntu/deialdiko

## 5. eranskina. Prestakuntza-ekintzak balioesteko proposamena

## DOCENTIAZ programarako proposamena (IEUBk onartu beharrekoa)

**Dimentsioa:** Irakaskuntzaren garapen profesionala

**Azpidimentsioa:** Prestakuntza

**Atala:** Irakats lidergoa (3.1.)

**Adierazlea:** UPV/EHUko batzordeekin lotura duten arduradunak eta kideak.

2 puntu ekintza eta urteko
Euskara Zerbitzuaren Zuzendaria
Testugintzaren, terminologiaren eta corpusen arduraduna
Euskara Proben eta euskarari buruzko argitalpenen arduraduna
EHULKU eta hizkuntza-baliabide digitalen arduraduna
Irakasle-ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzaren arduraduna
TSE koordinatzailea
UPV/EHUren euskarazko aldizkariaren zuzendariak

1 puntu ekintza eta urteko*
EIGA/ZUZEN+/ADITU programen deialdiaren koordinatzailea
Hobekuntza ikastaroen koordinatzailea
AITZINATU programako mintegien koordinatzailea
TSE: arduradun teknikoa
TSE sustatzailea
TSE: Mintegi iraunkorraren arduraduna
UPV/EHUren euskarazko liburu-bildumen koordinatzaileak

\* Bigarren zerrenda hau aplikatuko zaie, lehen zerrendako karguak ez dituzten UPV/EHUko kideei.

**Adierazlea:** Goi hezkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuekin loturiko beste ekintza batzuk.

0,50 puntu ekintza eta urteko*
TSE sustatzailea
Euskarazko argitalpenen begiraleak: liburuak, aldizkariak, itzulpenak... (Euskara Zerbitzuak izendatutakoak)
Hizkuntza-baliabideen arduradunak (corpusak, kontsulta-guneak...)

## 5. eranskina. Prestakuntza-ekintzak balioesteko proposamena

## DOCENTIAZ programarako proposamena (IEUBk onestekoa)

**Dimentsioa:** Irakaskuntzaren garapen profesionala

**Azpidimentsioa:** Prestakuntza

**Atala:** Jasotako prestakuntza

**Adierazlea:** 3.3.1.5. Eleaniztasuna

EIGA	0,50 puntu
HOBKUNTZA IKASTAROKAK	0,50 puntu
ZUZEN+	1,0 puntu
ADITU (C2)	1,50 puntu
AITZINATU-1-Ikasmaterialak	1,50 puntu
AITZINATU-2-Argitalpenak	1,50 puntu
AITZINATU-3-Baliabide digitalak	1,50 puntu
TSE	Osorik: 2,00 puntu TSE-1: 0,25 puntu TSE-2: 1,00 puntu TSE-3: 0,75 puntu TSE-Mintegi iraunkorra: 0,50 puntu/urteko

**Dimentsioa:** Irakaskuntzaren garapen profesionala

**Azpidimentsioa:** Prestakuntza

**Atala:** Emandako prestakuntza

**Adierazlea:** 3.3.2.5. Eleaniztasuna

HOBKUNTZA IKASTAROKAK	1 puntu ikastaroko
AITZINATU	1 puntu ECTS bakoitzeko
TSE	1 puntu ECTS bakoitzeko